BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

1345

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 24koa, Gazteriako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2012. urteko ediziorako onartutako proiektuen zerrenda ezagutzera ematen duena.

Kultura sailburuaren 2011ko azaroaren 16ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2012. urteko ediziorako proiektuak aurkezteko deia egiten die Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei. Agindu hori 2011ko azaroaren 25ean eman zen argitara EHAAn.

Agindu horren eranskinaren 11.1 oinarrian xedaturikoa betez, Gazteria zuzendariak Ebazpena eman du 2012ko urtarrilaren 24an. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2012. urteko ediziorako proiektuak onartu ditu. Ebazpen horretan jaso da onartu ez diren proiektuen zerrenda ere.

Gazteriako zuzendariaren Ebazpenaren berri emango zaie banan-banan interesdun guztiei. Horrez gain, Aginduaren eranskinaren 11.2. oinarrian xedaturikoari jarraituz, onartu diren eta onartu ez diren proiektuen zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, zabalkunde osoa izan dezaten.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2012ko ediziorako onartu diren proiektuen zerrenda (ikus I. eranskina), zabalkunde osoa izan dezan. Proiektu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek aurkeztu dituzte, Kultura sailburuak 2011ko azaroaren 16an emandako Aginduaren babespean (EHAA, 2011ko azaroaren 25ekoa).

Bigarren artikulua.– Argitara ematea, zabalkunde osoa izan dezan, onartu ez diren proiektuen zerrenda (ikus II. eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 24a.

Gazteriako zuzendaria,
IGNACIO RODRÍGUEZ PUERTAS.

I. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2012ko «Auzolandegiak» programarako ONARTU DIREN PROIEKTUAK

Eskaera egin duen entitatea	Auzolandegiaren proiektua	Auzolandegia. non	LH	Lan-mota	Puntuak guztira	Onartutako txanda kopurua
Asparrengo Udala	Azkaroiko txabola berreskuratzea	Araia (Asparrena)	Araba	Ingurumena berreskuratzea	55	2
Lanciego/Lantziegko Udala	«El Lugar-ko» iturri-uharka egokitu	Lanciego/Lantziego	Araba	Ondarea berreskuratzea	64	2
Garion Naturartea Elkartea	«Jardin-museo irekia» martxan jartzea Otazan	Ozaeta	Araba	Sormena	40	1
Añanako Gatz-Harana Fundazioa	Lana Añanako Gatz-Haranean	Salinas de Añana	Araba	Ingurumena berreskuratzea	65	2
Urremendi Elkartea	Kulturak eta Naturak ingelez egiten dute Busturialdean	Gernika	Bizkaia	Gazteen gizarte-dinamizazioa	55	2
Enkarterrialde	Garai bateko burdinbidea eta, meatze-ondarea berreskuratu eta gaia eta dibulgazio lanak	Artzentales	Bizkaia	Ondare etnologikoa berreskuratzea	55	2
Lekeitioko Udala	Hirugarren adinekoentzako animazioa	Lekeitio	Bizkaia	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-	56	2
Bergarako Udala	Belaunaldi arteko trukaketa / Intercambio entre generaciones	Bergara	Gipuzkoa	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa /	56	2
Urretxuko Udala	Irimoko elur-zuloen berreskuratzea	Urretxu	Gipuzkoa	Ondare etnologikoa eta ingurumena berreskuratzea	47	1

II. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2012ko «Auzolandegiak» programarako ONARTU EZ DIREN PROIEKTUAK

Eskaera egin duen entitatea	Auzolandegiaren proiektua	Auzolandegia. non	LH	Lan-mota	Ez onartutako arrazoia
Oyón-Oiongo Udala	Toki publikoak sasiz garbitzea eta egokitzea	Oyón-Oion	Araba	Ingurumena berreskuratzea	Proiektuak 30 puntu lortu ditu, ez da beharrezkoa den gutxienekora iritsi
Balenharri Iraskundea	Ondarea, ingurumena eta berriztagarri indarrak berreskuratzea	Abanto	Bizkaia	Ondare etnologikoa eta ingurumena berreskuratzea	Proiektuak 37 puntu lortu ditu, ez da beharrezkoa den gutxienekora iritsi
Segurako Udala	Arrue jaurigiaren atzeko aldea berritzea	Segura	Gipuzkoa	Ondarea berreskuratzea	Proiektuak 37 puntu lortu ditu, ez da beharrezkoa den gutxienekora iritsi
Dabilur entitatea		Uribe Butroi	Bizkaia		Ez dute proiektu zehatzik aurkeztu